

Lehen hezkuntza. 3

SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1



HELBURU KOMPETENZIALAK

- Ikasleak trantsizio energetikoaren beharraz kontzientziatzea.
- Energia-iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak ezagutzea eta bereiztea.
- Energia ekoiztearen eta erabiltzearen ondoriozko zenbait arazo azaltzea.
- Udalerriak erabiltzen dituen energia-iturriak aztertzea.
- Gure udalerrietan trantsizio energetikorako aukerak identifikatzeko tresnak ematea.
- Benetako arazoaren eta balizko irtenbideen berri ematea.
- Ikasleak energiaren problematikari buruz sentsibilizatzea eta horiek ekintzara eramatea, eguneroko ekintzen konpromiso individualaren bidez.
- Lankidetzeta eta talde-lana sustatzea.
- Etxean gaiaren inguruan hitz egitea.

IKASGAIA

Natura, gizarte
eta kultura
ingurunearen
ezagutza

IKASGAI ERLAZIONATUAK

- Balio zibiko eta etikoetako heziketa

LANDUKO DEN GAI
EKOSOZIALA

- Ekodependentzia
- Krisi zibilizatorioa

EUSKO JAURLARITZAREN
INGURUMEN-POLITIKAK

- Energia
- Ohitura jasagarriak
- Aldaketa klimatikoa

Ikas egoeraren markoa

TESTUINGURUA. Aldaketa klimatikoa eta krisi energetikoaren ondorioz ikasleek hain gustukoa duten herriko igerilekua itxi behar duela dio Udalak, gehien kontsumitzen duen eraikin publikoa delako. Honi aurre egiteko oraindik batzuetan ezezagunak egiten zaizkigun energia berriztagarrien onurak ezagutu beharko dituzte eta hainbat erronka gaindituz arazoari irtenbide bat topatu beharko diote.

Abiapuntua

Klima aldaketaren superheroi gisa, beraien botereak martxan jarri eta talde lanean arituz, arazo honi aurre egiten saiatu beharko dira. Zuek izan zarete hautatuak, zuen esku dago igerilekua.

AZKEN PRODUKTUA. Esperientzian ikasitakoa ikastetxean zabaltzeko infografiak egitea eta horma edo txoko ezberdinetan zehar pegatzea proposatzen da. Energitron-en audioa ikastetxean eta etxean zabaltzea ere proposatzen da, denon energia ohiturak aldatzen hasteko. Helburua bai ikastetxean bai etxean energia gaizki erabiltzen dugun momentutan audio hau jarri eta jarrera desegokiak antzematea da, hauek egoki bihurtzeko. Komunikaziorako irakasleari egindako lan edo ekintzen argazkiak bidaltzeko eskatuko zaio.



Curriculumaren zehaztapenak

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK	1, 2, 3 1,2, 1, 2, 4 1, 2, 4, 5 4, 1, 3	2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilita, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturalean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.	2.2. Natura-, gizarte- do kultura ingurunearekin zerikusia duten gaiei buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak aztertu eta interpretatuz, izan daitezkeen irtenbideen koherentzia baloratuz eta egindako iragarpenekin alderatuz. 2.5. Ikerketen emaitzak modu kooperatiboan komunikatzea, mezua eta formatua zuzentzen den entzuleei egokituz, hizkuntza zientifikoa erabiliz, egindako urratsak azalduz eta generoikuspegi hartuz.	A: Kultura zientifikoa 2. Bizitza gure planetan – Gizakiaren bizi-funtzioen oinarrizko alderdiak ikuspegi integratu batetik: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziea betikotzea.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 3 1, 2 1, 2, 4, 5, 6 1 4 1, 4 1 1, 2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura ingurunekeko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak Komunikatuz. 5.2. Natura-, gizarte- eta kultura ingurunekeko elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu horien artean sortzen diren harremanak ulertzea. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez.	A. Kultura zientifikoa 3. Materia, indarrak eta energia – Energia elektrikoa. Iturriak, eraldaketak, transferentzia eta erabilera eguneroko bizitzan. – Zirkuitu elektrikoak eta egitura robotizatuak.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3, 5 1, 2, 3 1, 2, 5, 6 2, 3, 5 4 1, 2, 3, 4 1, 2, 3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuta, eta problemak identifikatuta. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean Jakinarazteko. 6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoiak emanda.	C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak – Lurraren eta unibertsoaren etorkizuna. Lurrarekin eta unibertsoarekin lotutako fenomeno fisikoak, eta horiek eguneroko bizitzan eta ingurunean duten eragina. Esporazio espaziala eta zeruaren behaketa; argi-kutsadura. – Klima eta planeta. Atmosferaren dinamikarako eta munduko klima-eremu handietarako sarrera. – Lurraren ardatza, hemisferioak eta poloak. Koordenatu geografikoak. Ekosistema nagusiak eta haien paisaiak.

Lehen hezkuntza. 3

SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
				<p>4. Kontzientzia ekosoziala</p> <ul style="list-style-type: none"> – Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak. – Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna. Enpresen erantzukizun sozial eta ekologikoa. – Garapen jasangarria. Giza jarduera espazioen gainean eta baliabideen ustiapena. Jarduera ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa: gizarte- eta eskualde-berberdintasuna munduan eta Espainian. Garapen Jasangarrirako Helburuak. – Eredu ekonomiko berria bat: ekonomia berdea/zirkularra. Garapen jasangarrirantz. – Ondasunetako, finantzetako eta laneko merkatuen eragina herritarren bizitzan eta ekosistemetan (estraktibismoa). Eragile ekonomikoak eta lan-eskubideak genero-ikuspegitik (ekofeminismoa). Zergen balio soziala. Enpresen gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna. – Publizitatea, kontsumo arduratsua (beharrak eta nahiak) eta kontsumitzailearen eskubideak. – Bizitza jasangarria: planetaren gehienezko mugak eta baliabideen agortzea. Azterna eta zor ekologikoa.

BALIO ZIBIKO ETA ETIKOETAKO HEZIKETA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK	2, 5	<p>3. Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harreman sistemikoak aztertzea, arazo ekosozialei buruzko ezagutzaren eta gogoetaren bidez, pertsonetikiko eta planetarekiko errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin bat datozen balio eta praktikekin aktiboki konprometitzeko.</p>	<p>3.1. Klima-aldaketa ulertzea, hura geldiarazteko hainbat aukera ebaluatzen eta garapen jasangarrirako helburuak lortzeko, ingurune hurbilean kausak eta arazo ekosozialak identifikatuz.</p> <p>3.2. Pertsonetikiko, animaliekiko eta planetarekiko errespetuarekin, eta haien zaintzarekin eta babesarekin bat etorriko diren balio, jardun eta jarrera afektiboekin aktiboki konprometitzea, uraren eta energiaren kontsumo arduratsua eta mugikortasunaren eta hondakinen kudeaketa eta erabilera iraunkorra sustatuko dituzten jardueretan parte hartuz.</p>	<p>E. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika</p> <ul style="list-style-type: none"> – Planetaren mugak eta klima-aldaketa. – Izaki bizidunetikiko eta natura-ingurunearekiko enpatia, zainketa eta estimua. – Gure kontsumo-ohiturak aztertzen jarraibideak. – Kontsumo-ereduak (tokikoa, globala...). Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, eta hondakinen kudeaketa.
KE	1, 2			
STEM	5			
KD	1, 4, 5			
KPSII	2			
HK	2, 3, 4			
KAKK	1			
EK				

Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- * 1. Giza ekodependentzia barneratzea. Bizi-sarearen parte garela ohartzea.
- * 7. Klima-aldaketa zer den, haren kausak, ondorioak eta konponbideak ezagutzea.
- * 10. Baliabide eta hustubideetan Lur planetaren mugak ezagutzea. Energia berriztagarriak etorkizuneko energia gisa onartzea, baina orainaren itxurarik izango ez duen etorkizun gisa.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- * Adibideren bat eman ekonomiak natura nola behar duen azaltzeko.
- * Azaletik azaltzea zertan datzan klima-aldaketa.
- * Erregai fosilen erreketa klima-aldaketaren kausa nagusi gisa identifikatzea.
- * Klima-aldaketaren zenbait ondorio zerrendatzea.
- * Klima-aldaketa hazkunde ekonomikoarekin lotzea.
- * Klima-aldaketek gizarte-aldaketetan nola eragin dezaketen azaltzeko adibideak ematea.
- * Klima-aldaketarekin lotuta planteatzen diren arazoei aurre egiteko irtenbide indibidualak, komunitarioak eta sozialak diseinatzea.
- * Planeta mugatu batean hazkundeari eta kontsumoari mugak daudela sinetsita adieraztea.
- * Energia berriztagarriak defendatzea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Ekodemekotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- * Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- * Baliabide energetikoei eta materialek eta ekosistemek eta klimak gizateriaren historian izan duten eragina.
- * Klima-aldaketaren kausak: erregai fosilak erretzea. Berotegi-efektua handitzea, berotegi-efektuko gasen isurketagatik.
- * Klima-aldaketaren erantzukizunak, klasearen, jatorriaren eta generoaren arabera bereizita.
- * Klima-aldaketaren ondorioak: muturreko fenomeno meteorologikoak (lehortea, uholdeak, bero-boladak, etab.), suteak, izotza urtzea, itsas maila handitzea, basoak galtzea, etab.
- * Klima-aldaketaren aurkako neurriak maila indibidualean: mugikortasun motorizatua murriztea, dieta begetarianoak eta hurbiltasunekoak, kontsumoaren urritasuna, etab. Neurri eraginkorrak eta irismenaren balorazioa.
- * Mineralak eta fosilak iturri berriztaezin gisa
- * Krisi material eta energetikoaren erantzukizunak, klasearen, jatorriaren eta generoaren arabera bereizita.
- * Krisi material eta energetikoaren ondorioak: ondasun erabilgarrien murrizketa, mugikortasunaren murrizketa, etab.
- * Krisi energetikoaren eta materialaren inpaktuak, klasearen, lurraldearen eta generoaren arabera.
- * Energia berriztagarri nagusiak. Energia berriztagarrien eta erregai fosilen arteko ingurumen-inpaktu bereizgarria (ekosoziala?)
- * Energia berriztagarri nagusien behar materialak eta energetikoak.
- * Krisi material eta energetikoei aurre egiteko neurriak maila kolektiboan: ondasunak partekatzea, benetan berriztagarriak diren energietarako trantsizioa, etab. Neurri eraginkorrak eta irismenaren balorazioa.
- * Krisi material eta energetikoei aurre egiteko banakako neurriak: kontsumoa murriztea, mugikortasuna murriztea, ondasunak konpontzea, etab.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren konpetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.

Metodologia



ESTRATEGIA

Zereginetan
oinarritutako
ikaskuntza
Ikaskuntza
kooperatiboa

ESTRATEGIA
EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa
Ekintzarako ikaskuntza
Ikaskuntza aktiboa



TEKNIKAK

OHIKOAK:
Digitalak
Role-playing
Grafika eta ikonoak
Ikus-entzunezkoak
Azalpenak
talde handietan

